

2025eko ekainaren 2a. Ohiko Batzar Nagusiaren laburpena / Resumen Asamblea General Ordinaria. 2 de junio de 2025.

2025eko ekainaren 2an egindako Batzar Nagusian, Kontseilu Errektoreak proposatutako akordio guztiak onartu ziren, eta, horrez gain, Errekurtso Batzordea, Jagoletza Batzordea eta Kontseilu Soziala berritu ziren.

Alderdi esanguratsuenak azpimarratuko ditugu:

Estatutuen eta Barne Araudiaren aldaketa

Kontseilu Errektoreak proposatutako aldaketak aurkeztu ziren, Estatutu Sozialen 23. eta 38. artikuluetako eta Barne Araudiaren 50. artikuluetako testuak aldatzeko, eta bi testu horiek onartutako aldaketekin bateratzeko. Gehiengoz onartu ziren, eta kontrako jarrera batekin, Estatutu Sozialen 23. artikulua onartzean.

Eroski Koop. E-ren urteko kontuak

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu ziren Eroski Koop. E-ren 2025eko urtarrilaren 31n itxitako 2024ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kontu bateratuak.

Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria.

2024ko ekitaldiari dagokion Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartzea erabaki da, abenduaren 28ko 11/2018 Legean ezarritakoaren arabera, eta Jasangarritasun Korporatiboari buruzko Txostenen Europako Zuzentarauan (CSRD) ezarritakoarekin bat etorritz.

2024ko emaitzen banaketa.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da proposatutako emaitzen banaketa, erabaki honen bidez:

ERABAKIA:

Aurreko erabakia onartu ondoren, honela egingo da emaitzen banaketa:

1) "Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2024ko ekitaldiaren emaitza positiboen banaketa onartzea, 137.490.333,35 eurokoa, honela:

SOBERAKIN GORDINA	137.490.333,35 €
2025eko urtarrilaren 31n ordaindu ziren funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzera.	8.370.986,04 €
SOBERAKIN GARBIA (EKLren 69. artikulua)*	129.119.347,31 €
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzera	89.796.651,96 €

SOBERAKIN ERABILGARRIA	39.322.695,35 €
Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuziora (COFIP):	3.932.269,54 €
Nahitaezko Erreserba Funtsera:	19.661.347,68 €
Borondatezko Erreserba Funtsera:	15.729.078,13 €

EKL: 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.

Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa (COFIP) banatzea.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu dira 2024ko ekitaldiko emaitzetatik abiatuta eratutako Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Kontribuzioa aplikatzeko oinarrizko ildoak. Onartutako lerroak bat datoz Estatutu Sozialetan ezarritako helburuekin; besteak beste, kontsumitzaileari eta bazkideei zuzendutako prestakuntza eta informazioa, kooperatiben arteko harremanen sustapena, eta hezkuntzaren, kulturaren, lanbidearen eta asistentziaren arloko sustapena.

Eroski Koop. E-ren egoerari buruzko informazioa eta transakzio-proposamena. Ahalmenak eskuordetzea.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da zorpetze-egitura potentzialak lortzeko transakzio-proposamena, haien kostu finantzarioa murrizteko eta zorpetzearen egitura sinplifikatzeko helburu nagusiarekin, barne hartuz, besteak beste, zor-tresna berrien harpidetza, obligazioen jaulkipena eta/edo zorpetze osoaren edo zati baten nobazioa, amortizazioa eta/edo ezerezteak.

Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabili beharreko gehieneko zenbatekoa zehaztea eta haien itzulketa egitea.

Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen-atalasea eta likidezia-atalasea kontuan hartuta, Batzar Nagusiak 11,1 milioi euroan finkatu du erreferentzia-aldian kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den zenbateko osoa.

Era berean, erabaki du ez itzultzea 2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2025eko maiatzaren 23ra arte adostu dituenak, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte.

ERABAKIAK:

- 1) "11.100.000 eurotan (hamaika milioi ehun mila euro) finkatzea 2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreari 2025eko apirilaren 22ra arte eskatutako eta 2025eko maiatzaren 23a baino lehen

onartutako bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa”.

- 2) “2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideei eta Kontseilu Errektoreak 2025eko apirilaren 22ra arte eskatutako eta 2025eko maiatzaren 23a baino lehen onartutakoei egindako ekarpenak itzultzea erabakitzea, guztira 11.100.000 euroko zenbatekora arte (hamaika milioi ehun mila euro), Eroski Koop. E-ren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 3) “2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2025eko maiatzaren 23ra arte adostu dituenak itzultzea ez erabakitzea, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, eta Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Gehiengoz onartu da, aurkako jarrerarik gabe.

Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpenak eguneratzea.

Gehiengoz, eta aurkako jarrerarik gabe, lan-bazkideen ekarpenak zehaztea erabaki da, sarrerako kuota gisa **2.473,86 euroko** kopurua eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpen gisa **9.895,43 euroko** kopurua ezarri; beraz, 2025eko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko nahitaezko ekarpen osoa **12.369,29 eurokoa** izango da.

Eguneratze hori erabaki honen bidez onartu da:

ERABAKIA:

Bakarra. - “Lan-bazkideen ekarpenak zehaztea, sarrerako kuota gisa 2.473,86 euroko kopurua eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpen gisa 9.895,43 euroko kopurua ezarri; beraz, 2025eko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko nahitaezko ekarpena guztira 12.369,29 eurokoa izango da”.

Funts Propio diren EMFEen ordainketa

2007an jaulkitako Mendeko Finantza Ekarpenak dira. Aurten, 2026ko ekitaldirako EMFE horien ordainketa onartu da, eta 2027ko urtarrilaren 31n abonatu dira, erabaki hau onartu ondoren:

ERABAKIA:

Bakarra. - "2007an jaulki ziren eta Funts Propioen parte diren

Mendeko Finantza Ekarpenen 2026ko ekitaldiari dagokion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2027ko urtarrilaren 31n abonatu da".

Gehiengoz onartu da, aurkako jarrerarik gabe.

Batzar Nagusiak itzultzea erabaki ez duen lan-bazkideen kapital sozialerako ekarpenak ordaintzea.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da 2025eko otsailaren 1ean hasi eta 2026ko urtarrilaren 31n bukatutako aldiari dagokionez % 3,25eko ordainsaria aitortzea; hots, baja eman duten eta Batzar Nagusiak itzultzea onartu ez duen bazkideen kapitalerako ekarpenen diruaren legezko interesaren baliokidea. Sortzapena "2025eko ekitaldian sortutako interesetatik eratorritako ekarpenak" izeneko ekarpen bihurtuz egingo da.

Eroski Koop. E.ko Delegatuen Batzar Nagusiaren Funtzionamendu Araudiaren proposamena

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da Eroski Koop. E.ko Delegatuen Batzar Nagusiaren Funtzionamendu Araudiaren testua, zeinak Batzarraren jarduketa-printzipioak eta antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarritzko arauak ezartzen dituen.

Eroski Koop. E.ak Cecosa Diversificación SLU sozietatearen xurgapen bidezko bat-egitea onartzea, eta bat-egitearen balantzea onartzea.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da Eroski Koop. E.ak Cecosa Diversificación SLU sozietatea xurgatzea eta xurgapenaren bidez bat-egitea, sozietatearen egitura sinplifikatzeko asmoz.

Bat-egite horrek ez du eraginik sozietate xurgatzailearen enpleguan, ezta estatutuetan ere.

Errekurtso Batzordea berritzea.

Egindako bozketaren ondorioz, honako bazkide hauek izendatu dira Errekurtso Batzordeko kide, Estatutuetan ezarritako gehienez bi urteko eperako:

<i>Bazkide kontsumitzaileak</i> <i>Personas socias de Consumo</i>	<i>Lan-bazkideak</i> <i>Personas Socias de Trabajo</i>
<i>Titularra/Titular</i>	<i>Titularra/Titular</i>
Belen Varela Lodeiro	Araceli Fernández Martínez
<i>Ordezkoa/Suplente</i>	<i>Ordezkoa/Suplente</i>
Edurne Cardenal García	-

Jagoletza Batzordea berritzea.

Egindako bozketaren ondorioz, bazkide hauek izendatu dira Kontseilu Errektorera, Estatutuetan ezarritako gehienez bi urteko eperako:

Bazkide kontsumitzaileak Personas socias de Consumo	Lan-bazkideak Personas Socias de Trabajo
<i>Titularra/Titular</i>	<i>Titularra/Titular</i>
<i>Lurdes Arrizabalaga Calvo</i>	<i>Nerea Albizuri Urigüen</i>
<i>Elixabete Fernández Caballero</i>	
<i>Ordezkoa/Suplente</i>	<i>Ordezkoa/Suplente</i>
<i>Ainhoa Zeziaga Elexpuru</i>	<i>Koldobika Baroja Fernández</i>

Kontseilu Soziala berritzea

Egindako bozketaren ondorioz, honako hauek izendatu dira Kontseilu Sozialerako, gehienez lau urteko eperako:

TITULARRA TITULAR		ORDEZKOA SUPLENTE	
IZENA NOMBRE	ZENTROA CENTRO	IZENA NOMBRE	ZENTROA CENTRO
Begoña Suárez López	C. Euskal Herria	Haizea Villanueva Gómez	Deusto
Agustina Romero Corchero	C. Lasasarre	Igor Arranz Burgos	Zalla
Iciar Belacortu Durán	E. Boulevard	Maialen Arco Villar	E. Boulevard
Carmen Taboada Freijedo	C. Aretxabaleta	Ana Isabel Gallego Caballero	C. Arrasate
María Teresa Malumbres Ladrón	C. Chile	Silvia Tejedor Vegas	C. Jorge Vigón
Ana Isabel García Rodríguez	E. Bilbondo	Miren Maite Larrazabal Orue	C. Puente Baskonia
Aranzazu Landa Sarasola	E. Urbil	Sofía Monroy Caballero	E. Garbera
Iker Sustacha Barcena	CC_Alimentación	Juan Carlos Lara Sánchez	Aprovisionamiento